

Memoria gorde,  
oraina bizi,  
etorkizuna eraiki,  
izan Kronikalari!



## HERNANI PORTU AUZOA

### Erroskila tailerra, gaur

Gabonetako ekintzetan azkena izango dute gaur Portu Auzoan. Dagoeneko ohitura den bezala, erroskila tailerra egingo dute 16:30etan hasita, eta ondoren, merendola izango da, Auzo Elkartearen lokalean. ||

## HERNANI URTARRILEKO KULTUR AGENDA

# Goiz Eguzkiren kontzertuak, jarraipena

Goiz Eguzki abesbatzak urteberriko kontzertua eskainiko du gaur, arratsaldeko 19:00etan hasita, jubilatuen egoitzako areto nagusian. Komikigintza tailerra ere izango da, Axpiren eskutik.

INDARTSU hasiko da urtea hernaniarrentzat. Atzo izan ziren urtarrileko aurreneko kultur agendako ekintzak; horietako bat izan zen Axpik zuzendutako komikigintza tailerra, gaur eta bihar segida izango duena.

Urteko aurreneko astean egin ohi duen bezala, Urteberriko kontzertua eskainiko du gaur Goiz Eguzki abesbatzak. Arratsaldeko 19:00etan hasita izango da, jubilatuen egoitzan. Bazkide eta jarraitzaileak gonbidatu dituzte, bereziki.

### Gaztetxoentzat, 'Goalzen' bihar

Bereziki gazteenek gozatzeko moduko oporrak izaten dira negukoak, eta horretarako, egitarau oparoa antolatu du aurten Udalak, biharko ekintzak borobilduko duena.

Pausoka taldearen eskutik, *Goalzen* antzerkiarekin gozatu ederra hartuko dute gaztetxoek. Bi saio izango dira; bata, 16:00etan, eta bestea, 18:00etan. Dena den, bi saioetarako



Larunbatean beharrez, ostiral arratsaldez izango da aurten, txotx denboraldiaren hasiera Hernanin.

sarrerak agortuta daude, aspalditik.

Baina jarduera horrek ez die Gabonei bukaera emango, hurrengo eguneko Errege Kabalgata egingo du hori.

Horren ondoren, urteko ohiko jardueri emango zaie

hasiera, hau da, irakurketa klubari, bigarren eskuko azokari, edota Biteriko ohiko erakusketei.

### Txotx denboraldiaren hilabetea, urtarrila

Urte hasiera bakarrik ez, txotx

denboraldiaren hasiera ere izaten da urtarrileko protagonista. Aurten, aurreneko, ostiralez egingo da irekiera ofiziala Hernanin, herritarrekin batera; urtarrilaren 18an izango da hori, arratsaldeko 19:30etatik aurrera. ||

## HERNANI-GOIZUETA

### Errege Magoak, bidean

Larunbat iluntzean Errege Magoak iritsiko dira Urumea bailarara, ekialde urrunetik. Goizuetan, Guraso Elkartek antolatuta, 18:00etan ibiliko da Kabalgata herrian zehar. Hemanin, berriz, Berriak elkartearen eskutik goxokiak eta muxuak banatuko dituzte Meltxor, Gaspar eta Baltasarrek, arratsaldeko 18:00etan Urbieta kaletik abiatuta. ||

## ASTIGARRAGA

### Jolas Txikin aukera, gaur ere

Eguberrietako Haur Parkearekin atzo gozatu ahal izan zen Astigarragan, baina gaur eta bihar ere izango da entretenimendua; 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:30etara kultur etxeko jolas aretoa irekita izango dute 9 eta 12 urte arteko haurrek, doan: mahai-jolasak, futbolina, egurrezko jostailuak... izango dira. ||

### Autobusa, Bilboko manifestaziorako

Urtarrilaren 12an manifestazioa egingo da Bilbon, euskal presoen eskubideen alde, eta Astigarragako Presoen Lagunek autobusak jarriko dituzte herri-tik bertara joateko. Izena emateko zerrendak ikatzan eta Zipotzan jarri dituzte. ||

## GALDUTAKOAK

### Txakur beltz bat, Lastaolan

Hemaniko Lastaola auzoko bizilagunek jakinarazi dute abenduaren 4an arratoi txakur beltz bat agertu zela, eta geroztik han dagoela, etxe batean. Bularra txuria eta isatsa motza dauka, emea da eta altan zegoen, baina ez du txipik. Galdu duenak, telefono hauetara deitu dezake: 943 57 99 75 edo 660 63 85 87. ||

## Urtarrileko agenda

**GAUR ETA BIHAR** Komikigintza tailerra. Begiralea: Axi. Adina: 10-14 urte. Lekua: Biteri kultur etxea. Edukiera mugatua. Ordua: 11:00.

**GAUR** Urteberriko kontzertua. Goiz Eguzki abesbatza. Lekua: Goiz Eguzki, jubilatuen etxea. Ordua: 19:00etan.

**4 Haur** - Gaztetxo antzerkia: *Golazen* (sarrerak agortuta). Taldea: Pausoka. Lekua: Biteri kultur etxea. Ordua: 16:00 + 18:00 (2 saio). Hizkuntza: euskera. Adina: 7-12 urte.

**5 Erregeen Kabalgata.** Ordua: 18:00.

**10** Irakurketa kluba (1. saioa). Begiralea: Mari. Adina: 3-5 urtekoentzat + gurasoak. Izen-ematea: Udal Liburutegia. Espazioaren edukiera mugatua. Ordua: 17:30.

**12** Bigarren Eskuko Azoka + Kalezkale Kantari + Erromeria. Ohiko leku eta orduetan.

**17** Ipuin kontaketa: *Pello Añorga*. Lekua: Biteri kultur etxea. Ordua: 17:39 (3-4 urte) eta 18:00 (5-7 urte).

**18** Txotx eguna. Ordua: 19:30.

**24** Nahasteka. Dantza ikuskizuna: *Esku harriak Oteizaren (h)aria*. MugMus konpainia. Lekua: Biteri kultur etxea. Ordua: 20:00. Sarrera:

7,50 euro. Sarrerak salgai urtarrilaren 1etik aurrera.

**26** Haurrentzat antzerkia: *Benetan be*. Inondik inora konpainia. Adina: familia osoarentzat. Hizkuntza: euskera. Lekua: Biteri kultur etxea. Ordua: 12:00. Sarrerak salgai urtarrilaren 16tik aurrera.

**30** Ipuin kontaketa. Kontalaria: Lur Korta. Lekua: Biteri kultur etxea. Ordua: 17:30 (3-4 urte) eta 18:00 (5-7 urte).

**30** Txori txikia eta Krokodiloa. Ipuinaren aurkezpena eta performantza. Aktoreak: Unai Agirre, Eñaut Agirre, Jexux Eizagirre eta Boubá. Antolatzailea: Dobera Euskara Elkartea. Hizkuntzak:

euskera eta wolof. Lekua: Biteri kultur etxea. Ordua: 19:00.

### LITERATUR SOLASALDIAK

**9** *Volver a casa*, Yaa Gyasi. Amaia Garciak dinamizatuta, gaztelaniaz. 19:30etan, Liburutegian.

**15** *Waterloo-n galdutakoak*, Xabier Etxaniz. Ane Mayozen dinamizatuta, euskeraz. 19:30etan, Liburutegian.

### ERAKUSKETAK

**5-bukaera** Oroimen historikoa. Migrazioak. Egilea: Juanxo Egaña.

**8-22** Argazkia. Ainara Garcia.

**5-Otsailak 12** Erliebeko obrak. Egilea: Ainara Garcia.

**AKELENEA**  
Eretegia - XIX Mendeko Sagardotegian

Menua  
3 hasierako  
Arraia  
Haragia  
Postrea, ogia, kafea

Gaurtik aurrera berriz irekita.  
**URTE BERRI ON!**

Koldo eta Pina  
**27€**  
(BEZ barne, edaria aparte)  
**Enkarguz**

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - 943 333 333

**Tripontzi jatetxea**

PINTXOAK  
RAZIOAK  
ENTSALADAK  
PLATER KONBINATUAK  
ARRAI FRESKOA

ANDRE KALEA, 11 - HERNANI  
943 555 724

OPARITU EDERTASUNA  
ETA ONGIZATEA

**nibiru**  
UNIBER ERETEGIA ENTEGIA

Kobido Liftinga  
Spa tratamendua  
MASAJEAK

Manikura Pedikura  
Indiba tratamendua  
Fotodepilazioa  
Automakillaje ikastaroa

IZPIZUA 1 - HERNANI  
T. 943 24 35 60  
[www.nibiruedergintza.com](http://www.nibiruedergintza.com)

Zorionak Oihan Olaskoaga Lopez!

**10** urte

**TAXIAK:** 943 550093 | **UDALTAINGOIA:** 943 248900 | **DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 | **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 ☩ / **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** / **Gauetz:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani)

**EGURALDIA**  
**GAUR** Behe-lainoak agertuko dira egunaren hasieran, baina gero, eguzkitsu egongo da gehienetan. Ekialdeko haizea ibiliko da. Temperaturak negukoak izango dira. **Min.2° / Max.7°**  
**BIHAR** Ostiral egunsentian hotza egingo du, eta izotza ere botako du. Ondoren, eguzkia izango da jaun eta jabe, baina tenperaturak neguko iburarekin jarraituko dute. **Min.2° / Max.7°** (euskaime)

## HERNANI ESKUBALOIA

# Ate irekiak gaur eta bihar, gazteek eskubaloia probatzeko

Goizeko 10:30etatik eguerdiko 12:30ak bitarte izango dira jardunaldiak, Hernaniko kiroldegiko 1.pistan.

GABONETAKO oporrak aprobetxatuz, eskubaloia probatzeko aukera izango dute 2007 eta 2010 urte bitartean jaiotakoek, Hernani Eskubaloia Taldeak antolatuta. Goizeko 10:30etatik eguerdiko 12:30etara izango da aukera gaur eta bihar, kiroldegiko 1. pistan.

Klubak gonbidatu ditu «eskubaloia ezagutu eta probatu nahi duten neska-mutikoak».

### Aurtengo saskia, Kepa Bilbao sanjuandarrarentzat

Urtero banatzen duten Gabonetako saskiak ere, badu sariduna. Aurtengoa 3.347 zenbakiak eskuratu du, eta



Kepa Bilbao eta Amane Santakruz Azken Kilometroa dendan.

Kepa Bilbao sanjuandarra izan da sariduna. Zenbakia, aldiz, Sesa Tools infantil nesken taldeko Amane Santakruzek saldu zuten. Besteak

beste, Azken Kilometroa denda eta Lili bat loredenda izan zen sanjuandarra, otarreko sariak jasotzen. Beste hainbat opari ere jaso ditu. ||

## HERNANI ETA ASTIGARRAGA ERRENTERIKO GABON KANTEN SARIKETA



Azkeneko postuan abestu zuen 'Eragiyok' abesbatzak, eta garaipena lortu zuen, gero.

### 'Eragiyok' eta 'Kantuban'ek, sari bana

Aurreko larunbatean, abenduaren 29an izan zen Errenteriko Gabon Kanten Sariaketa Probintziala, eta Urumea bailarako bi taldek jaso zuten saria. Eta ez nolana hiko; Astigarragako Eragiyok taldea izan zen garaila, Eneko Amondarainen zuzendaritzapean, eta Hernaniko Kantuban Gazte Abesbatzak jaso zuten 3. saria, Jagoba Astiazaranen gidaritzapean. ||



Saria jaso ondoren taldeko argazkia egin zuen 'Kantuban' abesbatzak.

## ASTIGARRAGA TXIRRINDULARITZA

# Urko Semperena lider, bi jardunaldiren faltan

Juniorretan ere ondo dabilta astigartarrak: Jaime Romero lider da, eta Telmo Semperena 5garren.

BI erronka desberdini egin behar izan diete aurre txirrindulari astigartarrek, pasa den asteburuan.

Batetik, Gipuzkoako Bioracer txapelketan aritu da Urko Semperena, 23 urtez azpikoetan. Bestetik, Jaime Romero eta Telmo Semperenak Bioracerreko jardunaldia utzi, eta Gipuzkoako Selekzioarekin, Burdeoseko Neguko Txapelketan izan dira.

### Gipuzkoako Bioracerren lider, astigartarrak

Anoetako belodromoan ari da jokatzeko Gipuzkoako Bioracer Txapelketa, eta pasa den asteburuan, zazpigarren jardunaldian, scratch eta puntuazio probetan aritu da Urko Semperena. Scratchean, gainera, proba ikusgarria egin eta ikaragarri bukaerako sprintari esker, irabazi egin zuen.

Puntuazio proban, berriz, saiatu bazen ere, ez zuen lortu ihes egindako txirindu-

lariak harrapatzea, eta pelotoiak harrapatu zezan utzi zuen, deskantsatu eta azken sprintean erasora jotzeko. Estrategia ona, inondik ere, irabazi egin baitzuen, eta horrekin, bigarren egiteko nahikoa puntu lortu zituen. Horrela, bi jardunaldiren faltan, 23 urtez azpikoetan lider jarraitzen du Urko Semperenak.

Juniorrei dagokienez, Burdeosera joan direnez azken jardunaldia jokatu ez badute ere, astigartarrak dabilta aurrean: lider da Jaime Romero, eta Telmo Semperena bosgarren dioja.

### Burdeoson, Selekzioarekin

Hain zuzen, Burdeoseko Neguko Txapelketan izan dira bi astigartar juniorrak, Gipuzkoako Selekzioarekin. Asier Pozo taldekideak scratch proba irabazi zuen, eta Jaime Romero bigarren izan zen. Puntuazioan Romerok hirugarren eta Telmok 5garren egin zuten. ||

## HERNANI GERTAERA



Sutea itzaltzen aritu ziren suhiltzaileak. Argazkia: Udaltzaingoa.

### Sutea Akarregi auzoan, urte berriarekin

Urte berriaren hasierarekin batera, ezbeharra izan zen Akarregi auzoan. Semper baserriaren gordelekuan gertatu zen; 02:46etan jaso zuen Hernaniko udaltzaingoa abisua, eta segituan bertaratu ziren, suhiltzaileekin eta ertzaintzarekin batera. Udaltzaingoa jakinarazi duenez, ez zen inor bizi gordelekuan, baina ibilgailua guztiz kixkalita geratu zen eta teilatua ere kaltetua izan zen. Sutea kortozirkuitu batek eragin zuela adierazi dute. ||

## IRAGARKI MERKEAK

Hernaniko okindegi batean lan egiteko dependent@ behar da. Ezinbestekoa euskaraz jakitea eta gidabaimena edukitzea. Deitu 609 543 900 (10:00etatik 14:00etara)

**Inigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)